

Ardatz estrategikoa:	3. ardatza- Antolamendua egokitzea	Proiektua:	Proiektua: 3.5. Intranetaren eta barne-kudeaketa elektronikoaren eboluzioa	
Azpiproiektua:	3.5.1. Intranetaren eboluzioa			
Deskribapenaren laburpena:	Intraneta garatu nahi da, "mahaigain" erabilgarria izan dadin erabiltzaileentzat, eta produktibitate-tresna izan dadin eguneroko lanean. Horretarako, intranetak erantzuna eman behar die, besteak beste, espedienteak tramitzeari eta kudeatzeari, jakintza eta berrikuntza kudeatzeari, sare profesionalak eta elkarlana kudeatzeari, langile publikoen tramiteen idazkaritzari (ordutegi-kontrolaren intzidentziak, baimen- eta opor-eskaerak, ikastaroetan izena ematea, zerbitzu-eginkizunak, bidaietako gastuak...) eta abarri.			
Helburu orokorrak:		Helburu operatiboak:		
• Dauden aplikazioak eta baliabide informatikoak eskuratzeko modua hobetzea eta sinplifikatzea • Banakakoen eta lantaldeen produktibitatea hobetzea • Parte-hartzea bultzatzea • Erabiltzaileen gogobetetasuna handitzea		• Intranet berria ezartzea 2015eko abendurako • Erabilgarritasun berriak ezarri joatea 2016ko abendura arte		
Egikaritzea:				
• Elementu berriak sartu dira: “Pertsonak” erlaitza, berrikuntza bezala Harrera-eskulibura eta lehen jasotzen ez ziren elementu batzuk jasotzen dituen, adibidez Zerbitzu Medikoa. Lehen EIZUn zegoen informazioa ere sartzen ari da, hala nola Lan Osasunaren atala. • Lehendik zeuden elementuen eguneratzea: Segurtasuna, Berdintasuna, eta abar. Era beran, EIZUn egiten ari diren aldaketetara ere egokitzen da. • Pixkanaka, ezartzen doaz erabilgarritasun berriak ere: Intraneta (adibidez, euskadi.eus) etengabeko eboluzioan dago, eta sortzen ari diren eta langileentzat interesgarriak diren erabilera guztiak sartzen ditu, bai Eusko Jaurlaritzarenak, bai Jasoren bidez Jakina bisitatzen duten beste ente publiko batzuenak.				
Arduraduna:	Aldi baterako aurreikuspena:	Egikaritzeko benetako epea:	Egoera:	Balorazioa:
DACIMA	Epea: 3 urte Hasiera: 2014 Amaiera: 2016	Hasiera: 2014 Amaiera:	☐ Amaitua ☒ Aribidean ☐ Hasi gabe	☒ Positiboa ☐ Hala-nolakoa ☐ Negatiboa
Oharrak:				